BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4446

AGINDUA, 2011ko uztailaren 20koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, unibertsitate aurreko irakasmailetan erabiltzeko asmoz argitaraturiko euskal ikasmaterial hoberenak saritzeko 2011. urteko «Ixaka Lopez-Mendizabal» lehiaketara dei egiten duena.

138/1983 Dekretuak (EHAA, uztailaren 19koa, 108. zk.) zein, aurrekoa garatuz, 1983ko abuztuaren 1ean emandako Aginduak (EHAA, abuztuaren 19koa, 122. zk.) diotenaren ildotik, hainbat ekintza bideratzen ditu urtero Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, euskal ikasmaterialgintza sustatzeko asmoz. Horren lekuko da, besteak beste, EIMA programa. Era berean, aipatzekoa da ikasmaterialon egokitasuna, edukizkoa eta hizkuntzazkoa, bermatze aldera egindako saioa, gaur egun 295/1998 Dekretuak arautzen duena (EHAA, azaroaren 27koa, 227. zk.).

Horiei esker, besteak beste, euskal ikasmaterialgintza, gaur eta hemen, ageriko errealitatea da, egunez egun, hezkuntzaren etengabeko zaharberritzeari zein irakas-sistemaren hobetzeari ahalik eta erantzun egokiena ematen dakiena.

Euskarazko ikasmaterial inprimatuen ondarea ugaldu eta aberastea zuzena eta bidezkoa bada ere, hori bezain garrantzitsua da esandako ikasmaterialok, beren ezaugarri teknikoei zein kalitatezkoei esker, eskola-munduan berariazko onarpena eta sarbidea izatea. Atal honetan ere hainbat urrats eman da eta, aurrerantzean ere, eman beharko da. Hori dela-eta, 1985ean hartutako bideari jarraituz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak irakaskuntzan hain beharrezkoa den lan-tresna horren kalitatea bultzatu eta saritzea erabaki du.

Horiek guztiak gogoan izanik, honako hau

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

DEIALDIAREN XEDEA

1. artikulua.– Unibertsitate aurreko irakasmailetan erabiltzeko asmoz argitaraturiko euskarazko ikasmaterial hoberenak aukeratu eta saritzeko, 2011. urteari dagokion «Ixaka Lopez-Mendizabal» lehiaketara dei egitea.

2. artikulua.– Lehiaketan parte hartzeak deialdi honetan esaten direnak onartu beharra dakar berekin.

II. KAPITULUA

LEHIAKETARA BIL DAITEZKEENAK

3. artikulua.– Euskal ikasmaterialgintzan diharduten eta beharrezko lege-nortasunez horniturik dauden argitaletxeak eta egile-editoreak izan daitezke, soilik, sari-jasotzaile.

Zigor– edo administrazio-arloko zigorra jaso duten, eta horren ondorioz, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu duten edo horretarako ezgaitzen duen lege-debeku baten eraginpean dauden pertsonek edo erakundeek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioan erori izanagatiko lege-debekuak barne, ezin izango dute Agindu honetan araututako diru-laguntzen eta laguntzen deialdietara aurkeztu, zigorrak ezarritako aldian.

4. artikulua.– Lehiaketa honek unibertsitate aurreko irakasmailetan erabiltzekoak diren bost ikasmaterial mota hauek hartuko ditu kontuan:

a) Euskaraz ikasteko testu-liburuak.

b) Euskara ikasteko testu-liburuak.

c) Irakaslearen gidaliburuak.

d) Oinarrizko irakurgaiak.

e) Ikasmaterial osagarriak.

5. artikulua.– Lehiaketa honetan parte hartu nahi duen orok, gehienik ere, hiru ikasmaterial aurkeztu ahal izango ditu 4. artikuluan zehaztutako mota bakoitzeko.

6. artikulua.– Ikasmaterial horiek, 2010. urtean argitaraturik egonik, Lege-gordailua, ISBNa eta egile-eskubidearekiko eginbideak behar bezala beteak izan beharko dituzte ezinbestean. Argitalpen-data moduan ikasmaterialean bertan adierazitako Lege-gordailuarena hartuko da.

III. KAPITULUA

BAZTERREAN UTZIKO DIRENAK

7. artikulua.– Deialdi honetara ezingo dira bildu honako ezaugarri hauetakoren bat (edo gehiago) duten ikasmaterialak:

a) Goian aipaturiko baldintzaren bat betetzen ez duten ikasmaterialak.

b) Beharrezkoa den hizkuntzaren egokitasunaren jabe ez diren ikasmaterialak beti ere azaroaren 3ko 295/1998 Dekretuak zehaztutakoaren arabera.

c) Aurreko urteetan argitaraturiko ikasmaterialen berrargitalpenak.

d) Literatura-lanak.

IV. KAPITULUA

SARIEN ZENBATEKOA

8. artikulua.– 1.– Agindu honen diru-laguntzetarako hamalau mila (14.000) euroko zenbatekoa erabiliko da 2011ko ekitaldian, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partidaren kontura. Laugarren artikuluan esandako ikasmaterial mota bakoitzeko, sari bana izango da. Sari bakoitzaren zenbatekoa bi mila eta zortziehun (2.800) eurokoa izango da; horrekin batera oroigarri bana ere eskainiko da.

2.– Lehiaketara aurkezturiko ikasmaterialek beharrezko kalitaterik ez badute, sariak banatu gabe utzi ahal izango dira.

3.– Epaimahaiaren erabakiz sari bat eman gabe geldituko balitz, diru kopuru horrekin aipamen berezi bat (edo gehiago) egin ahal izango da. Edozein kasutan, emandako aipamen berezi horien baturak ez du sariari agindutako diru kopurua gainditukо, eta diru kopuru hori berdina izango da aipamen berezi guztientzat, betiere bat baino gehiago direnean.

V. KAPITULUA

ESKABIDEEN AURKEZPENA

9. artikulua.– 1.– Lehiaketa honetan parte hartu nahi duen orok Agindu honi eransten zaion eskabide-orria zuzen eta osorik bete beharko du eta, lehiaketan parte hartu nahi duen ikasmaterialaren sei ale erantsiz, garaiz aurkeztu.

2.– Ikasmaterialak, saritutakoak izan ezik, nork berea idatziz eskatzen badu, atzera bueltatuko dira, sarien berri eman eta handik bi hilabeteko epean.

3.– Eskabidea aurkezteko epea, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabetekoa izango da.

4.– Eskabide-orriak eta sei aleak Herritarrentzako Zerbitzuan –Zuzenean– edo Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira; orobat, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak bere 38.4 artikuluan adierazten dituen lekuetariko edozeinetan aurkez daitezke.

VI. KAPITULUA

EPAIMAHAIA

10. artikulua.– 1.– Ikasmaterial hoberenak aukeratu eta sari-proposamena egiteko berariazko epaimahaia osatuko da. Epaimahaiaren buru Hezkuntzako sailburuordea izango da, edota bere ordezkoa.

2.– Gainerako mahaikideak honako hauek izango dira:

a) Kultura Saileko Kultura Sustatzeko zuzendaria, edo bere ordezkoa.

b) Arte Grafikoen saileko ordezkari bat, Hezkuntzako sailburuordeak izendatua.

c) Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko ordezkari bat, Hezkuntzako sailburuordeak izendatua.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle bat, Hezkuntzako sailburuordeak izendatua.

e) Ikasketa Antolamenduaren Zerbitzuko kide bat, Hezkuntzako sailburuordeak izendatua.

f) EIMA I programaren teknikaria, hizpidez eta botorik gabe. Berau izango da epaimahaiaren idazkari.

3.– Hartarako pisuzko arrazoirik ikusiko balitz, epaimahaikide ez diren beste hainbat espezialistarengana jo ahal izango da, laguntza eta aholku bila.

4.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan agindutakoari jarraituz, epaimahaia sortzean bermatu egingo da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela.

VII. KAPITULUA

HAUTAKETA BIDEA

11. artikulua.– 1.– Sarituen hautaketa, hartarako izendatutako epaimahaiak eginkizun horretarako antolatutako lan-bilera(k) eginez eta botazio zuzenez egingo da.

2.– Ikasmaterial mota bakoitzean saridun zein gertatuko den jakiteko, honako irizpideok hartu ahal izango dira kontuan: ikasmaterialaren xedea, edizio-prestakuntza eta elementu guztien uztartze modua (diseinua, argazki-irudiak, konposizioa, inprimaketa eta koadernaketa).

12. artikulua.– Hautaketa egin ostean, epaimahaiak alor bakoitzerako aukeratutako ikasmaterialen izenak aurkeztuko dizkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari.

13. artikulua.– 1.– Epaimahaiaren proposamena ikusirik, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak lehiaketa hau ebatziko du 2011ko azaroaren 30a baino lehen, Agindu bidez. Agindu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, arlo bakoitzean sariduna zein gertatu den adieraziz, Agindu hau indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, gehienez.

2.– Adierazitako epean Agindu zehatzik argitaratuko ez balitz, saririk ez dela emango ulertuko da.

3.– Administrazio-bidea agortuko duen Agindu horren kontra, berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean. Era berean, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian dagokion gelan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunetik hasita bi hilabeteko epean.

VIII. KAPITULUA

SARIEN BANAKETA

14. artikulua.– Sarien banaketa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak berariaz antolatuko duen ekitaldi ofizialean egingo da.

IX. KAPITULUA

ERABILERA PUBLIZITARIOAZ

15. artikulua.– Saritutako ikasmaterialek jasotako sariaren aipamena egin ahal izango dute. Publizitatea egiteko ere erabil dezakete aipamen hori, betiere zein motatan sarituak izan diren adieraziz.

X. KAPITULUA

DATU PERTSONALAK

16. artikulua.– Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, «EIMA» deritzon fitxategian jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak kudeatzea eta deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari

buruz informatzea izango da. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honetako euskal eta erdal idazkien artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko da korapiloa askatzeko gidari.

Bigarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka berraztertzeko errekurtsoa jar liteke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean. Era berean, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, dagokion gelan, esandako egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hirugarrena.– Agindu honetan prozedurari buruz zehaztu ez den edozertarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea hartuko da kontuan.

Laugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 20a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ERANSKINA

EIMA PROGRAMA 2011. URTEKO «IXAKA LOPEZ MENDIZABAL» LEHIAKETA ESKABIDE ORRIA

ESKATZAILEA	
Izen-abizenak:	NAN:
Argitaletxearen izena eta helbidea:	

LEHIAKETARA AURKEZTEN DEN IKASMATERIALA		
Izenburua:		
Egilea(k):		
Irakasmaila:		
Jakintzagaia:		
Ikasmaterial-mota:		
Lege-gordailua:	I.S.B.N.:	Onespen-data:

ADIERAZPENA
Unibertsitate aurreko irakasmailetan erabiltzeko asmoz argitaraturiko euskal ikasmaterial hoberenak aukeratu eta saritzeko 2011ko «Ixaka Lopez-Mendizabal» izeneko lehiaketaren arauak kontuan izanik, goian adierazitako ikasmaterialaren sei ale aurkezten dituela esandako lehiaketan parte hartzeko.

ERANTZUKIZUNPEKO AITORMENA

Eskabide hau sinatzen duen honek zera aitortzen du: argitaletxe hau ez dagoela zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, 4/2005 Legearen (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerakoa) Azken Xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.

ESKABIDEA

Goian zehaztutako ikasmateriala onartua eta erroldatua izateaz gainera, lehiaketa horretan kontuan hartua izan dadila.

.....…….....(e)n, 2011ko.....aren.....(e)an (izenpea eta zigilua)

OHARRA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen tramitazioan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek erabiltzea eta argitaratzea baimenduko dituztenak, «EIMA» deritzon fitxategian jasoko dira. Fitxategi honen helburua deialdi honetako diru-laguntzak kudeatzea eta deialdi honetara aurkezten diren pertsonei deialdiaren garapenari buruz informatzea izango da. Fitxategi honen arduraduna Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza da. Lege horretan adierazitako sarbide, zuzenketa, ezabatze eta aurkatze-eskubideak erabiltzeko, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Halaber, deialdi honetan parte hartu duten pertsonek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan aurkeztutako dokumentuen benetakotasuna egiaztatzeko.

Ixaka Lopez-Mendizabal lehiaketa. EIMA programa.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Vitoria-Gasteiz.